

Silver Bizkaia proiektuaren komunikazioa Basauri eta Etxebarrin

2060 urtean, hiru
europarretik batek 65
urtetik gora izango ditu.

Euskadin, 2028 urtean,
50 urtetik gorakoak
gehiengoa izango dira
gizartean, eta
kontsumoaren motorra.

Basaurin, 65 urtetik
gorakoak populazioaren
% 26'5a ziren jada 2017an.

Euren biziaroa betetasunez bizitzeko beharrak, asmoak eta irrikak dituen kolektiboa da. Etengabe hazten ari da. Gastu-ahalmena dute eta euren aztarna ekonomikoa geroz eta handiagoa da.

Europar Batasunaren arabera, 50 urtetik gora dituzten haiei zuzendutako ekonomiaren atalari **Silver Economy edo Zilarrezko Ekonomia** deritzo.

Silver Economy-k adin nagusikoen beharrak asetzen dituzten jarduera ekonomiko horiek guztiak barne hartzen ditu. Gizartearen segmentu zehatza helburu duten produktu nahiz zerbitzuak, hainbat sektoretan eragina dutenak: osasuna eta elikadura, aisia eta ongizatea, finantzak eta garraioa, etxebizitza, zainketa, hezkuntza edota lanbidea, besteak beste. Ekonomia honen inpaktua orokorra da eta handituz doa, Silver Economy **egungo joera demografikoei estuki lotuta** baitago, non adinekoen kopurua haziz doan.

Ondorioz, negozio aukera bikaina da enpresentzat, adinekoen kontsumoa, mundu-mailan, bilioi eurotan zenbatzen baita. Estimazioen arabera, Europako kontsumo-hazkundearen ia %60a 2015-2030 aldian 60 urtetik gorako pertsonengan kontzentraturikoa da.

Zenbat eta enpresa gehiago dira Silver Economy deritzonari begira jarri direnak. Indartsu agertzen ari den aukera-esparrua da, oraindik asetzeke eta aurkitzeke dauden hainbat beharri-zanekin. Berebiziko interesa du euren merkatu eta produktuak dibertsifikatu nahi dituzten ekintzaile zein enpresentzat.

Espezializatutako programa Behargintza Basauri-Etxebarrin



info +
94 426 29 99

Errealitate berri horretaz jabetuta, Behargintza Basauri-Etxebarri, beste zenbait garapen agentziarekin batera, eta Garapen buru izanik (Garapen Agentzien Euskal Elkarte), **“Silver Bizkaia”** proiektua dinamizatuko du. Proiektu hau Bizkaia Foru Aldundiak kofinantzatu du, Lankidetzan sortutako Berrikuntza-proiektuen Elkarlanean 2019 Programaren barnean, ondorengo helburuekin:

- 01** Adin nagusikoei zuzendutako merkatuek eskaintzen dituzten aukeretan sakontzea, eskualdean bereziki garrantzitsuak izan daitezkeen lau arlotan: **Elikadura, Osasuna-Zainketa, Turismoa-Aisia-Merkataritza eta Etxebizitza.**
- 02 Bertako enpresa nahiz ekintzaileei negozio eta lanbide aukera berrietaz baliatzea** ahalbidetuko dien proiektu berriak identifikatu eta sustatzea.

Silver Bizkaia ekimena **2019ko azaroan hasi eta 2020ko ekaina bitartean hedatuko diren jardueren programa espezializatu** gisa antolatu dugu. Sesioak, lantegiak eta laguntasun aktiboa uztartuko ditugu Behargintza Basauri-Etxebarritik bideratutako eragile eta proiektuentzat, Silver Economy-ren arloan aditua den enpresa baten laguntzaz (Plataforma 50). Programak ondoko egutegia du:

- 01** Sentsibilizazio jardunaldia Basauri-Etxebarrin. Aukera berrien nondik-norakoak azalduko zaizkie interesa duten enpresa eta pertsoneri. 2019ko azaroaren 21ean.
- 02** Gaikako 4 lantegi, eskualdeen arteko lankidetzaz bideratzen, 2020ko lehen hiruhilekoan.
- 03** Espezializatutako laguntasuna bideragarriak izan daitezkeen proiektu berrien sortze eta garapenerako. 2019ko azarotik 2020ko ekaina bitartean.